

## **ZEINTZUK DIRA NIRE GURASOAK?**

Leire Akizu Bidegain

*Urretxu*

Jadanik beteak ditut bi eskuetako hatzak, bai, duela pare bat aste bete nituen hamar urte. Gogoan dut oraindik nire urtebetetze eguna, hura bai eguna! Lagunak etxera gonbidatu nituen meriendatzera, nire familia osoa ere han zen. Dena primeran joan zen.

Hurrengo egunean, eskolan, sortu zen Mikel eta nire arteko gatazka. Mikel nire gelako ahozabal ergelena da. Tontolapiko hutsa den arren, nire gelako neska-mutil guztiak ditu atzetik. Bezperan, nire urtebetetze egunean, egindakoaz hitz egiten ari ginela Mikelek jeloskor zera esan zuen:

–Aizu Jon, hire gurasoak oso majoak dituk, ezta?

–Bai, hala dituk, zer ba?

–Ez dakit ba, ez al dira majoegiak?

–Zergatik esaten duk hori?

–Ez, ba hire gurasoak ez izateko oso ondo portatzen direla, besterik ez.

–Zer esan nahi duk? –orduan konturatu nintzen agian entzun nahi ez nuen zerbait entzungo nuela. Sarritan geure burua engainatzen saiatzen gara

errealitatetik ihes egin nahian. Begiak itxi nituen une batez, ez nekien zer egin, nik ez nuen neure bizitza aldatzerik nahi, ez nuen heldu bihurtu nahi, txikitan nintzen ume polit hura izaten jarraitu nahi nuen, goizero amak esnatzeko musu goxo bat ematea nahi nuen... Ez nuen nahi ezer aldatzerik.

–Jon, jada hamar urte bete dituk, baina ez al dakik hire gurasoak ez direla hire benetako gurasoak?

Ez nion ulertu nahi. Nola ez ziren ba gurasoak nire gurasoak izango?

–Zer esan nahi duk horrekin? –galdetu nion harriturik.

–Baboa, adoptatua haizela. Mundu guztiak bazekik eta.

Gogoan ditut hitz haiek. Hitz mingarri haiek. Hitz zalantzati haiek. Hitz gogor haiek. Negar batean komunera joan nintzen korrika. Pertsona zital haiengandik ihesi. Komun batean sartu eta krisketaz itxi nuen atea. Bakarrik egon nahi nuen, isiltasunean murgildurik.

Etxera iritsi bezain laster, ama ikusi nuen. Begira-begira geratu ginen biok. Orduan, bi begirada triste gurutzatu ziren. Amak, nire begietara begiratu bezain pronto jakin zuen zer gertatzen zitzaidan. Bere begirada ez zen betikoa, ez, ez zen betiko begirada goxo, ezti eta alai hura. Egia esateko garaia iritsi zela ere ohartu zen ama, eta beste ezer esan gabe, mahaian eseri ginen hirurok.

Afalorduan aita eta ama isilik zeuden, serio. Ez zuten gaia atera nahi. Azkenean pentsatu nuen onena nik galdetzea izango zela. Ahalik eta modu onenean galdetu nien, izan ere banekien eurentzat ere ez zela gai erraza izango.

–Aitte, ama, egia esatea gustatuko litzaidake, adoptatua al naiz?

–Beno, Jon, dagoeneko hamar urte bete dituzu eta iritsi da egia jakiteko garaia –esan zidan aittek.

Ni isilik nengoen, harrituta. Eurek hitz egiteko garaia zen.

–Duela hamahiru urte, umea izaten saiatu ginen. Ni haurdun gelditu nintzen. 8 hilabete pasa ondoren, gure haurrarentzako logela, sehaska... Dena prestatuta genuenean, auto-istripua izan nuen, ez zen larria izan baina tripa barruan nuen umea hil egin zen –esan zidan amak triste.

–Zure amak, umeak izateko aukera galdu zuen auto-istripu hartan. Umea izateko nahiak oraindik, hortxe ziharduen eta azkenik adoptatzea pentsatu genuen.

–Hiru urte luze ezer jakin gabe itxaroten pasa ondoren, zure berri eman ziguten. Esan ziguten gure adinagatik aproposa zinela, eta zuretzako guraso onak izango ginela. Makina bat paper eta makina bat diru gastatu genuen gestio lanetan –esan zidan amak.

Ama, mahaitik jaiki zen, egongelan zegoen armairua ireki zuen eta bertan zegoen karpeta gorri bat hartu zuen. Bertatik paperak eta argazkiak ateratzen hasi zen.

–Begira Jon, hauxe zara zu –esan zidan aittek ume baten argazkia ikustean. Argazkiaren gainaldean, letra handiz izen bat zegoen: *JOSÉ MARQUEZ SANTOS*.

Nire amak Kolonbian bizi zuen egoera kontatu zidaten. Nire amak alkoholarekin arazoak zituen eta oso egoera txarrean bizi zen. Bi arreba ere ba omen nituen, ni baino zaharragoak, hauek amonarekin bizi ziren eta euren bizimodua ez bizitzeko eman omen ninduten adopzioan.

Lehenengo aldiz, negar malkoa erori zitzaidan. Ezin nuen sinetsi: “*Ez, ezin liteke*” pentsatu nuen, bizitza osoa pasa dut pentsatzen bikote hau nire gurasoak direla eta orain, bat-batean, ni kolonbiarra naizela eta bi arreba nituela esaten didate. Ez dakit nire benetako ama bizirik egongo den, ez nor den nire aita, ez non dauden nire bi arrebak. Ez dakit ezer.

Ezin nuen gehiago. Irten beharra nuen, garrasi egin beharra nuen, egia jakin beharra nuen. Negar batean hasi nintzen eta nire logelara joan nintzen. Atea itxi nuen eta ohe gainean etzan nintzen. Bertan zeuden kuxinetako bat hartu eta negar egin nuen.

Denbora luzean egon nintzen negarrez. Nire logelan, lau pareta haien artean, negarrez, nire barruak hustu nahian. Bertan gai berari hainbat buelta eman nizkion. Zergatik jokatu zuten horrela nire gurasoek? Zergatik ezkutatu zidaten egia horrenbeste denboran? Zergatik?

Horixe zen buruan bueltaka nuen galdera, zergatik. Asko maite nituen neure gurasoak, nahiz eta ez izan nire benetako gurasoak, txikitatik, benetakoak balira bezala zaindu naute, maitatu naute, hezi naute. Neure gurasoek euren umea ez izan arren, babestu egin naute. Bat-batean dena garbi ikusi nuen. Nire gurasoak benetako gurasoak ziren, naturak hala nahi izan edo ez, nik hala sentitzen nuen. Nik maite nituen eta eurek ni ere bai. Zer gehiago behar nuen?